

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresak eskaintzen duen zerbitzuaren inguruan dauden kostuak aztertu ditugu, sarean dagoen informazioarekin nolabaiteko kostu hipotetikoak zeintzuk izango diren aurreikusiz.

Hasteko, lokalaren gastuei dagokionez, lehenengo egin behar dugun pausoa lokala prestatzeko lana da: lokala erosi, obra egin gure beharretara egokitzeko eta beharrezko tresneria erosi. Gauzak horrela, Donostian ikusi eta hautatutako lokalaren prezioa 400.000 €-koa da, trensa elektrikoetan gastatuko duguna (mahai, su, izokailu...) 8.000€-koa da. Lokalaren obra egiteko 150.000 €-ko gastua egingo dugu. Guztira, 558.000 €-ko inbertsioa izango da lokala nahi dugun bezala prestatzeko.

Gastu guzti horren zati bat bakarrik ordaintzeko gai izango gara gure aurrezkiekin, hori dela eta, bankuari kreditu bat eskatu beharko diogu. Kreditu hori aztertu dugu eta egindako kalkuluak adierazten digute, %2,74-ko interesekin (TAE), hilabete ordaindu beharko duguna 5.900 € inguruan geratzen dela.

Behin lokala prest dugunean eta enpresaren funtzionamendua egonkortzen denean, bestelako gastuak izango ditugu, argindarra, materiala edo soldatekin zerikusia dutenak.

Hilabeteko gastuak:

Kostu finkoak	Kostu aldakorak (ez dira hilabetero berdinak izango, baina aurreikuspena)
- Prestamoa: 5.900€ - Soldata (gureak): 2.500€ (x4) - Gainerako azpi-kontratuen gastuak (soldata): 2.250€ - Gainerako gastuak (erreformak, mantenua, produktuak): 1.000€	- Janaria: 5.000€ - Ura: 15€ - Gasa: 80€ - Elektrizitatea: 800€

Aurreikusi dugun hilabeteko osoko gastua 17.545€ izango da, baina kostu aldakorak aldatu daitezkeen horretan, hilabeteko gastuak ere aldatu egingo dira, noski. Datu hau batz besteko aurreikuspena besterik ez da.

Ilido beretik, gu izango gara, oro har, langile bakarrak eta bazkideak. Gu arduratuko gara administrazioaz, webgunearen jarraipenaz, garbiketaz eta sukaldatzen irakasteaz (batzutan kanpoko sukaldariak ere ekarriko ditugula egun berezietan). Hori dela eta gure soldata, hasieran, ez da oso altua izango, badakigulako hasieran ez dugula izango bezero sare handiegirik, baina gure proiektuan sinisten dugu eta ez dugu amore emango. Ondoren, bezeroak gerturatzen zaizkigun ala, eta arrakastatsua bihurtzen garen ala gure soldata igotzea dugu helburuetako bat. Guztia kontuan hartuta, soldata hipotetiko bezala 2.500 €-ko batz bestekoa jarri dugu, bitarteko moduan.

Amaitzeko, lortutako diru-sarrera eta kostuak kontuan hartuta, mozkina positibioak ditugunean (galerarik ez denean), mozkin hori inbertitu egingo dugu eta horrela gure zerbitzua ahalik eta onena izango da.

Kredituaren simulatzailea:

<https://www.financlick.es/calculadora-prestamos>